

Karmelo Landa

Bezpera ala Biharamuna

P

rozesuaren biharamunetik hauteskunde bezperatara egin dugu salto, eta niretzat daukat ez dugula lehenengoan gertatua ondo hausnartu, arin kaskarin baitabil mundu politiko ofiziala, botoen merkaturako prestakuntza kosmetikoan. Estatu espainiarreko politikariak, hauteskunde lehia horretan aktore nagusi izango direnak, aldiz, azkar ibili dira prozesuaren ondorioen irakurketa propioa egin eta beren komenientziatzko neurriak hartzen; are gehiago esango nuke, presidente espainiarrak egin dituen balantze publikoetan, disimulurik gabe aitortu du prozesuaren erabilera instrumental hutsa. Euskal Herritik begiratuta, aldiz, esperientzia horrek guztiak mereziko luke hemengo alderdi boto zale amorratuak eskaini nahi dioten baino arreta handiagorik; izan ere, 2004-2008 zikloa ez da edonolakoa izan Euskal Herrian, ezker eskuin eta gora zein behera begiratuaz: Anoetatik hasi eta hortik aurrera egindako bidean, Uztaritze edo Iruñea, Zapatero zein Sarkozy, Ibarretxe eta Sanz, bada zeri erreparatu eta zer aztertu, nahi izanez gero.

Kontua da hauteskundeen lasterketan sartzeko irrikan diren zenbaitzuk ez dutela hausnarketa handirik egin nahi, eta batez ere ez dutela prozesutik ateratzen diren ondorioekin konpromezurik hartu nahi, lehen-goan segitzeko prest daudelako. Oso deseroso egingo litzaioke gaur NaBairi, adibidez, aurreko hauteskundeetako Nafarroako Gobernu “aldaketa” PSOErkin konpartituaren inguruko kapitulu hura gogora ekartzea; edota PNVri begien aurrean jartzea PSOErkin batera prozesuan zehar izan duen jokabidea. Baina hemen plazaratzen den arazoa ez da birkokatze elektoral ingurukoa soilik. Askoz sakonagoa da eta urrunago doa. Kontua da azken finean prozesu horretan benetako gako politikoak mahai gainean jartzea heldu zela, eta une horretan bertan biluztu zela guztion begien aurrean gatazka luze honen benetako arazoia eta benetako soluziobidea: euskal herritarroi erabakia emateko moduko marko politiko



INIGO AZKONA

zehatz, gauzagarri, egingarri eta lorgarriaren inguruko akordioaren beharra. Baina gobernuak ezetz esan zion, eta honen lagunek amen gobernuak esandakoari. Eta hor hasi zen biharamuna.

Paradoxa handi bi planteatu dira prozesu hautsi horren ondorenean: lehena, ezker abertzalearen aurka piztu den paroxismo errepresiboa; ondo pentsatuz gero, soluziorako bidean proposamen politiko hain neurtua, zehatza eta landua aurkeztu duen agente politikoa laudatu, zaindu eta bultzatu egin beharko litzateke, prozesu berri baten lorpenera begira.

Bigarren paradoxa hauteskundeetarako deialdiarekin batera planteatu da: gobernu espainiarrak ezker abertzaleko edozein aukera legez kanpo utzi eta zigortzeko jarrera indartu duen une berean, “erabakitzeko eskubidearen alde” agertu den pertsona ospetsu batzuen plataformak eskaini diguna; edonork espero

zezakeen, baldintza hauetan, erabakitzeko eskubide hori estu-estu lotuko zutela plataforma kideek hauteskunde baldintzetara, nahitaez berauetara joateko baldintzat hartuaz aukera guztien berdintasuna, “denok ala inor ez” formulaz baliatuz. Baina ez da horrela izan, ez. Erabakitzeko eskubide hori *ad calendas* uzten denean, are okerrago gertatzen da, apartheid bortitz eta anker honekin nolabaiteko bateragarritasuna agertzen duen proposamen zehatz eta dei-

tura ezaguna duena bultzatzen dela era horretan, paisaia errepresibo neurrigabe eta nardagarri hau “udaberritzerik” balego bezala.

Bi paradoxa hauek badute loturarik: bata zein besteak atzera egiten duela egoeran, zigorrera edota bazterketara jotzen dutenean. Hortik ez dator soluziorik, hori ikasteko sobera esperientzia izan dugu azken urteotan. Horrez gain, aurreko prozesuak utzi dituen emaitza baikorren artean badugu bat argia: euskaldun guztion hitza eta erabakia oinarrian jartzen duena, lurraldetasun osoa errespetatuz eta aukera guztiak, independentziarako bidea barne, gauzagarri bihurtuz. ■

Hauteskundeetarako deialdiarekin batera, gobernu espainiarrak ezker abertzaleko edozein aukera legez kanpo utzi eta zigortzeko jarrera indartu duen une berean, ‘erabakitzeko eskubidearen aldeko’ pertsona ospetsu batzuen plataforma agertu da. Horra paradoxa!